

**ABAO** TXIKI

**Bizkaia**  
bizkaibus

Bizkaibus te acerca a la ópera  
Bizkaibusek operara hurbiltzen zaitu




Iñigo Casalí

# CUENTO DE NAVIDAD

**Eszena-zuzendaritza/  
Dirección de escena:**  
Ion Barbarin

**Ekoizpena/Producción:**  
Ópera de Cámara de  
Navarra

3,4 | Urtarrilak /  
Enero 2026



Arriaga Antzokiak eta ABAO Bilbao Operak elkarlanean antolatua /  
Una colaboración del Teatro Arriaga y ABAO Bilbao Opera

**A** TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

**ABAO** | **BILBAO  
OPERA**

ÓPERA PICCOLA  
PRESENTA

EL ESPECTÁCULO MUSICAL DE ESTAS NAVIDADES



---

# CUENTO DE NAVIDAD

---

¿PUEDE EL ESPÍRITU DE LA NAVIDAD  
VENCER A LA AVARICIA, EL EGOISMO  
Y LA SOLEDAD HUMANA?

MÚSICA  
IÑIGO CASALÍ

LIBRETO  
PABLO VALDÉS





## GIDA DIDAKTIKOA

DIANA ESCRICHE POLA  
DEPARTAMENTO EDUCATIVO  
ESCUELA DE MÚSICA KITHARA

ÓPERA PICCOLA  
PRESENTA

## AURKIBIDEA MUSICAL DE ESTAS NAVIDADES

- 
- 
- 1.- Opera bat osatzen duten elementuak 4. or.
- 2.- Operaren antzezpenaren prestaketa 6. or.
- 3.- Obraren testuinguru historiko eta literarioa 8. or.
- 4.- Pertsonaiak 9. or.
- 5.- Obraren libretoaren eta musikaren pasartea 9. or.
- 6.- Eskola-emanaldia: "entsegu orokorra" 12. or.
- 7.- Jarduerak 13. or.

MÚSICA  
INIGO CASALI

LIBRETO  
PABLO VALDÉS

## 1. Opera bat osatzen duten elementuak

Opera arte eszenikoen adierazpen soziokultural eta artistiko osoenetakoa da. Ezinbesteko lau elementu ditu: istorioa, musika-konposizioa, eszenografia eta abeslariak.

Hainbat zatitan egituratuta dago, eta eszena eta dekoratu bereziekin osatzen dute hari nagusia:

**Obertura:** operaren sarrera, instrumentuek bakarrik jotzen duten pieza laburra, ikusleari opera hasiko dela jakinarazteko.

**Errezitatiboak:** melodia errezitatuak edo mintzatuak. Bakarlariak interpretatzen dituzte, eta pertsonaien egoera emozionalak hobeto adieraztea edo, besterik gabe, informazioa ematea ahalbidetzen dute.

**Ariak:** ahots bakarlariak kantatutako eta orkestrak lagundutako musika-piezak, pertsonaiaren kezka eta gogoetak adierazten dituztenak.

¿PUEDE EL ESPÍRITU DE LA...  
VENCER A LA AVARICIA. EL...  
Y LA SOLEDAD HUM...



Sakatu edo eskaneatu QR kodea

**Duetoa, hirukotea, etab.:** bi abeslarik, hiruk edo gehiagok osatutako taldea.



**Korua:** musika-pieza modu koordinatu eta bideratuan interpretatzen duen pertsona-talde batek abestutako pasarteak.



**Interludioak:** agertokia aldatzeko edo hurrengo ekitaldiari hasiera emateko erabiltzen diren atal instrumentalak. Operaren gidoitzat jo litezke.

**Ekitaldiak:** opera osatzen duten eszenak sailkatzeko modua.

**Libretoak:** testu abestia eta mintzaturik, obra antzezten den hizkuntzan idatzia. Istorioa eta elkarrizketak jasotzen ditu.

## Ahotsen sailkapena:

Opera-abelsariak eta antzezten dituzten pertsonaien rolak ahots-motaren arabera sailkatzen dira, eta ahotsa honako ezaugarri hauetan oinarritzen da: tesitura, arintasuna, indarra eta tinbrea.

EL ESPECTÁCULO MUSICAL DE ESTAS NAVIDADES

Hona hemen ahots-motak altuenetik baxuenera:


♀	SOPRANOA
	MEZZOSOPRANOA
	KONTRALTOA
♂	KONTRATENORRA
	TENORRA
	BARITONOA
	BAXUA

### Badakizu...?


Castrati-ak tinbre femenino eta ahots-indar maskulinoa zuten gizonak ziren; pubertaroan ahotsa aldatu aurretik barrabilak zikiratzen zizkietelako zuten halako ahotsa.

## 2. Operaren antzezpeneren prestaketa

Hau da **opera bat** antzezten den arte **prestatzeko** prozesua:



**Agertoki** baten atalak **eta** antzezpenerako **beharrezko osagaiak**:



**Orrazia:** oihalak, hankak, pantailak eta fokuak zintzilikatzeko haga-multzoa.

**Bastidoreak:** agertokiaren alboetan dauden eta dekoratuaren parte diren armazoiak.

**Hobia:** agertokiaren eta besaulki-patioaren arteko guneko behekatua, musikarientzat.

**Banbalinak:** agertokiaren zabalera osoan zintzilikatutako zerrendak, haren goialdea ezkutatzeko eta eszenaren altuera ezartzeko.

**Agertokia:** artistek beren aurkezpenak egiten dituzten plataforma garaia.

**Besaulki-patioa:** besaulkiz hornitutako antzokiko behealdea.

**Palkoak:** balkoi-formako eremua, pribatuagoa, antzokiko goialdean.

### 3. Obraren testuinguru historikoa eta literarioa

Cuento de Navidad eleberri laburra da, Ebenezer Scrooge agure zeken eta berekoiaren eraldaketa kontatzen duena. Eguberri egunaren bezperan, lau mamu etorriko zaizkio bisitan: Jacob Marley bere bazkide ohia, eta iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko Gabonak. Espiritu horiek bizitzan egin dituen akatsak erakutsiko dizkiote, baita Eguberrien benetako esanahia ere: onberatasuna, karitatea, enpatia eta elkartasuna.

Charles Dickensek idatzi zuen 1843an, Erresuma Batuan, gizarte-desberdintasuna, pobrezia, krisi ekonomikoa, haurren esplotazioa eta Gabonetako tradizioen galera nagusi izan ziren urtean.

Dickensek zikoizkeria eta gizarte-axolagabekeria kritikatzeko erabili zuen nobela, bere haurtzaroan eta behartsuekiko zuen konpromisoan oinarrituta; eta Eguberriak definitzen dituzten balioak berreskuratze eta sustatzeko ere bai, alegia, eskuzabaltasuna, enpatia eta jai-izaera. Obra kultur fenomeno eta Gabonetako klasiko bihurtu zen.



Mezua argia eta unibertsa zen: Eguberriak partekatzeko, eskuzabala izateko, barkatzeko eta zoriontsua izateko garaia dira. Dickensek dirua eta boterea ez direla bizitzako gauzarik garrantzitsuena adierazi nahi zien bere irakurleei, eta zikoizkeriak eta norberekeriak bakardadea eta sufrimendura besterik ez dakartela. Aldi berean, kritika soziala egiteaz gain, aberats eta boteretsuenak behartsuenen egoeraz kontzientziatu eta sentibilizatu nahi zituen, hobetzen lagun zezaten.

**Badakizu...?**

Dickensek soilik sei astean idatzi zuen Cuento de Navidad, eta, argitaratu ostean, bost egunean agortu zen. Hainbat formatutara egokitu da, hala nola antzezlanetara, filmetara, telebistara, komikira eta irratsaioetara.

#### 4. **Pertsonaiak**

##### **EBEZENER SCROOGE**

Agure zeken, indibidualista eta erretxindua. Negozio baten jabea, dirutza biltzea du kezka bakarra. Dickensen aita eta John Elwes enpresaria (oso xuhurra zelako ezaguna) ditu oinarri.

##### **SCROOGEREN FAMILIA**

Fred, bere aita. Belle, bere emaztegai ohia.

##### **CRATCHIT FAMILIA**

Bob, Ebenezer Scroogeren langilea. Langileria irudikatzen du, esplotazioa eta miseria jasaten dituena. Oso pobrea da eta familia ugaria du. Carol emaztea eta Belinda, Martha, Peter eta Tim seme-alabak.

##### **SCROOGEREN IRAGANA**

Fezziwig jauna bere nagusia da biltegian. Agure merkataria, onbera eta alai. Dick Wilkins eta Fany, bere ikaskideak.

##### **MAMUAK**

Jacob Marley, bazkide ohia, kontaketa baino zazpi urte lehenago hila. Iraganeko, Orainaldiko eta Etorkizuneko Gabonen mamuak.

**Badakizu...?**



Ingelesez, Merry Christmas esamoldea ohikoa da, baina Cuento de Navidad argitaratu zen arte Happy Christmas esaten zen. Esamoldea Dickensek jarri zuen modan, "God Rest You Merry, Gentlemen" gabon-kanta oso gustukoa baitzuen. "Merry" hitzak "zoriontsu" esan nahi du, eta alaitasun- eta oparotasun-sentimenduari lotzen zaio. 21 aldiz agertzen da eleberrian eta, harrezkero, Gabonak zoriontzeko adierazpena da.

#### 5. **Obraren libertoaren eta musikaren pasarte bat**

Aktoreek nola ikasten duten jakiteko, **libretoaren eta partituraren pasarte bat** ekarri dugu. Pertsonaiaren izena, hark ikasi beharreko testua, batzuetan parentesi artean zein ekintza egin behar duen, eta partituran melodia eta hitzak jasotzen ditu.

### I.3 POR SCROOGE

*El ruido de un ventanuco al abrirse en lo alto del portón interrumpe el concierto. El CORO retrocede al unísono. LADY MASH se marcha.*

SCROOGE *(Se asoma, buscando a la policía.)*

**¡El escándalo...**

**detengan el escándalo  
de todos estos vándalos  
que no me dejan trabajar!**

*(A los Indigentes.)*

**Qué lástima:**

**a mí no me dais lástima.**

**Guardaos vuestras lágrimas.**

**Dejad de mendigar.**

**¡A trabajar!**

*Vuelta*

TODOS **¡Nos dejaste sin dinero!**

UNOS [S/T] **En la calle.**

OTROS [A/B] **¡Usurero!**

TODOS **Nadie sabe lo que te debemos.**

UNOS [S/T] **Nos asfixias con tu sogá.**

OTROS [A/B] **Nos aprietas.**

NIÑOS **¡Nos ahogas!**

HOMBRES **Por tu culpa...**

TODOS **...nos hundimos cada día un poco más.**

*SCROOGE cierra el ventanuco.*

*Los INDIGENTES se dirigen al público. BOB, BELLE y FRED,*

MUJERES **Por Scrooge.**

HOMBRES **¡Por Scrooge!**

MUJERES **Todo fue...**

HOMBRES **¡...por Scrooge!**

TODOS **Nos quedamos sin nada.**

MUJERES **Pídele...**

HOMBRES **Ya verás.**

MUJERES **Pídele...**

HOMBRES **Vivirás...**

TODOS **¡...estrujado por Scrooge!**

MUJERES **Por Scrooge.**

HOMBRES **¡Por Scrooge!**

MUJERES **Todo fue...**

HOMBRES **¡...por Scrooge!**

TODOS **Nos quedamos sin nada.**

MUJERES **Pídele...**

HOMBRES **Ya verás.**

## 1.3 Por Scrooge

6

Scrooge

cán-da-lo... de-ten-gan el es-cán-da-lo de to-dos e-sos ván-da-los que no me de-ja-n tra-ba-ja-ri! Qué

41

S.  
A.

Coro

41

T.  
B.

41

Piano

45

Scrooge

lás-ti-ma: a mí no me dais lás-ti-ma. Guar-da-os vues-tras lá-gri-mas. De-jad de men-dí-gar. ¡A tra-ba-

45

S.  
A.

Coro

45

T.  
B.

45

Piano

\* Entzun obraren beste pasarte batzuk QR kodea eskaneatuz.



## 6. Eskola-emanaldia: “entsegu orokorra”

“Entsegu orokorra” obra estreinatu aurretik egiten dena da, antzeztu nahi den ikuskizunaren berdin-berdina (jantziak, makillajea, argiak...). Obra estreinatuko den tokian bertan egin beharko da.

Ez da etengo, eta taldeko profesional bakoitzarentzat ezarritako jarraibide guztiak errespetatuko dira, nahiz eta antzeztu bitartean doikuntza tekniko edo artistikoren bat egon daitekeen.

Amaitutakoan, balorazio orokorra egingo da, estreinaldirako edozein kontu hobetzeko edo zuzentzeko.

### ANTZEZPENA IKUSI BITARTEAN IZAN BEHARREKO JOKABIDEA

**O**rdenatuta eseriko gara, aretozainek lagunduko dizute zure besaulkira

**P**resta zaitetz antzezpena arretaz ikusteko eta itzali zure telefonoa

**E**ntzun ezazu musika eta murgil zaitetz istorioan

**R**obotak bezala, ez jan eta ez edan

**A**sko txalotu, gogotsu, protagonistek eskertuko dizute

Badakizu...?

XV. mendean, antzezlanak komedia-antzokietan antzezten ziren. Aktoreak beti zebiltzan kirioak dantzan zenbat ikusle etorriko ote ziren, sarrerak ez baitziren aldeztu aurretik erosten. Berezi, jende aberatsa bertaratzea nahi izaten zuten, emanaldiaren amaieran dohain dirutsuenak ematen zituztelako.

Jende dirudun ugari zegoen jakiteko modu bat zen sarreran zenbat zaldi-gurdi zeuden zain ikustea. Askok baziren, zaldien kaka-piloa egongo zen lurrean. Harrezkero, arte-munduan ohikoa da zorte ona eta arrakasta opatzeko esamolde hau entzutea: **KAKA ASKO! Bada, horixe bera.**

## 7. Jarduerak

1.- Osatu letra-zopa opera bat osatzen duten zortzi elementuekin.

E	V	K	I	O	E	P	A	O	D	J	M	N	N	A
H	Z	K	N	B	O	L	E	O	I	E	K	F	M	K
N	N	G	O	E	A	O	F	R	E	I	O	R	A	L
I	N	T	E	R	L	U	D	I	O	A	K	O	E	I
Y	T	N	T	T	U	D	E	A	B	O	B	E	K	B
E	O	Q	O	U	E	A	T	Z	A	I	R	E	I	R
A	B	T	K	R	L	R	E	O	T	B	E	N	T	E
I	U	S	S	A	A	E	T	A	E	A	E	R	A	T
J	O	O	A	E	R	E	T	L	E	P	E	N	L	O
D	A	I	A	C	U	I	L	I	O	T	E	D	A	
U	R	N	U	D	Z	Q	E	T	O	A	K	O	I	A
N	I	B	R	E	D	A	L	A	B	R	O	E	A	L
C	A	L	R	I	E	U	U	B	A	U	A	E	K	T
U	K	R	R	E	N	A	C	E	A	I	I	R	A	E
S	E	B	E	O	K	K	R	E	I	S	D	N	U	L

2.- Jakingo zenuke ahots-espektroa baxutik altura ordenatzen?

- 1) \_\_\_\_\_ 2) \_\_\_\_\_ 3) \_\_\_\_\_ 4) \_\_\_\_\_  
 5) \_\_\_\_\_ 6) \_\_\_\_\_ 7) \_\_\_\_\_


3.- Definitu "castrati":

---



---

4.- Idatzi agertoki baten atalen eta elementuen izenak.



5.- Erantzun galdera hauei:

Zein urtetan idatzi zuen Dickensek Cuento de Navidad? \_\_\_\_\_

Nola du izena pertsonaia nagusiak? \_\_\_\_\_

Zenbat egunetan idatzi zuen obra? \_\_\_\_\_

Zein herrialdetan argitaratu zen obra? \_\_\_\_\_

Nor dira mamuak? \_\_\_\_\_

Zein esamolde egin zen ezaguna eleberria argitaratu ondoren? \_\_\_\_\_

6.- Lotu pertsonaia bakoitza dagokion deskribapenarekin:

- |               |                                |
|---------------|--------------------------------|
| Scrooge       | Scroogeren langilea            |
| Fan           | Scroogeren nagusia             |
| Fred          | Scroogeren langilearen semea   |
| Belle         | Bazkide ohia                   |
| Bob           | Agure zekena                   |
| Carol         | Scroogeren ikaskideak          |
| Tim           | Scroogeren emaztegai ohia      |
| Fezziwig      | Scroogeren arreba              |
| Dick eta Fany | Scroogeren langilearen emaztea |
| Jacob         | Scroogeren aita                |

7.- Taldetan, antzetzu eranskinen libreto-pasarteak.

8.- Entzun eranskinen musika-pasarteak eta saiatu partituran jarraitzen.

9.- Bereizi koloreekin partitura baten elementuak:



Konpasa

Kortxeak

Isiluneak

Sol klabea

Fa klabea

Sostenitua

The image shows a musical score for a voice and piano. The top part is a vocal line in 4/4 time, starting at measure 6. The lyrics are: "cán-da-lo... de-ten-gan el es-cán-da-lo de to-dos e-sos ván-dalos que no me de-jan tra-ba-jar!. Qué". The piano accompaniment starts at measure 41. The score is written in G major and 4/4 time. The piano part features a rhythmic pattern of eighth notes and chords, with a forte dynamic marking.

ÓPERA PICCOLA  
PRESENTA

EL PEQUEÑO MUSICAL DE ESTAS NAVIDADES

Ópera de Cámara  
de Navarra

CUENTO DE  
NAVIDAD



¿PUEDE EL ESPÍRITU DE LA NAVIDAD  
VENCER A LA AVARICIA, EL EGOÍSMO  
Y LA SOLEDAD HUMANA?



Ayuntamiento de  
**Pamplona**

**Iruñeko**  
Udala

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua